

LARRIALDI KLIMATIKOA

zurikeria ala alarma gorria?

iparhegoa
EUROPEAN
SOCIETY FOR
CLIMATE ACTION

iratzar
FUNDATION

eztabaidarako gogoetak



-ZERTARA DATOR HAU?-

SARRERA

Klimaren egoeraren gaineko kezka areagotu da azken aldian. Ez da harritzekoa. Azken urte luzeetako udararik beroenak, uholdeak eragiten dituzten euri jasa bortitzak, sute ikaragarriak non nahi... Horiek guztiek adierazten digute, ez bairik gabe, zerbait oso larria gertatzen ari dela.

Jakina, ama lurraren bizitza luzean ziklo klimatiko ugari izan da, baina azken urteetako gertakariak agerian uzten dute, batetik, gizakiaren jardueraren ondorio ematen ari den fenomeno dela eta, bestetik, beronen ondorioak oso larriak izan daitezkeela naturaren, gizakiaren eta oro har espezie askoren biziraupenerako.

Larritasun hori azpimarratze aldera, arlo honetako adituek eskatu dute aldaketa klimatikotzat izendatzen genuena “larrialdi klimatiko” gisa ezaugarritzea eta, ondorioz, horren arabeko politikak eta neurriak hartzen hastea. Bestalde, eta ekimen sozial ezberdinen ondorioz, gaiak indarra hartu du iritzi publikoa deiturikoan eta inondik ere etorkizuneko

eztabaida soziala izango dena abiatua da jada. Tradizio luzea du ekologismoak eta oro har natur baliabideen gaineko ardurak edo defentsak. Edonola, krisi klimatikoaren ondorioak geroz eta ikusgarriagoak egiten ari diren honetan, arazoaren larritasuna bera agerian gelditzen ari da eta, ondorioz, planetaren egoeraren gaineko kezka ere areagotzen ari da.

Horren harira, adierazpen instituzional eta proposamen politiko eta ekonomikoak ugaritu dira. Zurikeria handia dago ere halako gaietan eta bada eguneroko bere politika antiekologikoak planetaren aldeko adierazpen instituzional ponposoekin ezkutatu nahi duenik. Edonola, eztabaida ireki da eta ez da gutxi. Gaiak zentralitate politiko handia hartu du eta aurrera begira beste erabaki ekonomiko ugari klimarekiko harremanaren arabera neurtuko direnaren zantzuak daude.

Natur baliabideen eta iraunkortasunaren gaineko atzera kontua abiatu da. Ez badugu ekiditen edota ondorio latzeneri aurre egiten, ama lurak jasa ditzakeen ondorioak



betierekoak izan daitezke. Ondorioz, premia handia du adierazpen eta eztabaida horien ostean, erabaki zehatz eta egingarriak adostea eta martxan jartzea, espazio ezberdinetatik eta forma ezberdinetako ekimenak.

Bestalde, batzuk kezka eta larritasuna plazaratzen ari diren une berean, beste muturrean kokatu daitezkeen populismo-autoritarioaren erreferente nagusiak (Trump, Bolsonaro..) aldaketa klimatiko edota ebidentzia zientifikoa bera ere ukatzeraino iristen dira. Hau da, negazionismoa oraindik ere bada eztabaida publikoan. Batzuk ez dute arazoaren tamaina ikusi nahi eta ez dute larritasuna ontzat ematen ere. Edonola, guzti honen atzean dauden interes ekonomikoak ikaragarriak dira eta ulertu beharra dago ere negazionismoa bera funtzionala zaiola eliteen agenda desarrollistari.

Edonola, kontuan hartu behar da ere, negazionismotik harago, oso jarrera ezberdinak daudela arazoaren aitortza egiten dutenen artean ere. Badago, larrialdi ekologikoaren aitzakiapen norbere arrazaren, herrialdearen edo eskualde garatuen eskubideak lehenetsi nahi dituenik, alegia, joera autoritarioaren babesean hedatzen ari den ekofaxismoa. Bada ere, arazoa onartu bai, baina haien ardura zurtzea helburu duten adierazpen edo neurri murrizketara mugatzen diren jarrerak, hau da, gurean eta ia Europa osoan nagusi diren alderdi gehienek jarrerak. Badago, noski, areago joatea eskatzen duenik eta, New Green Deal baten aldarrian, egungo egoeratik abiatutako proposamen ausartak plazaratzen ari denik. Eta, azkenik, bada ere, nola ez, ereduak errotik aldatu behar dela esan eta egiturazko erabaki eta proposamenak eskatzen ari denik. Azken talde honetan kokatzen dira, adibidez, ekosozialismotik edota deshazkunde teoretatik abiatzen diren irakurketa eta alternatibak. Noski uler ditzagun joera hauen arteko mugak lauso, gure ekinbideak bezainbeste eta edonolaz ere, imajina ditzagun egungo testuinguruan disputan dauden (edo elkar elikatzen diren) joerak direla.

Dena dela, jarrera ezberdin horietatik harago, oso garrantzitsua da kontuan hartzea afera honen atzean dauden interes ekonomiko erraldoiak. Batzuei ez zaie komeni jendarteak krisi klimatiko eta ekologikoaren larritasunaz jabetzea eta, ondorioz, eztabaidak aurrera egin ahala, indar handiz irekitzen ari den eztabaida oso modu bortitzean emango dela aurreikusi daiteke.

Eztabaida horretan eragitea du xede eskutan duzun idazkiak. Han eta hemen diharduten eragile politiko, sozial eta ekonomiko ugariak hamaika proposamen jarri dituzte jada mahai gainean eta beste asko ezagutuko dira aurrerantzean ere. Aztertuko dugun moduan, ingurumenaren alorra

ezin da modu isolatu batean aztertu eta, ondorioz, beronen egoerari aurre egiteko jarrerak edo politikak askotariko ikuspegia eskatzen du. Pairatzen ari garen egoera larriari aurre egiteko, ez dago proposamen bakar edo zehatzik, neurri xorta bakarra ere ez dagoen bezalaxe. Aipatu bezala, eztabaida ireki da eta denon ardura da proposamen, neurri edota norabidearen gaineko ekarpenak egitea. Eztabaida horren baitan jarri nahi dugu gure aletxoak, gure ekarpen xumea.

Hemen ez dituzu proposamen zehatzak topatuko. Eztabaida, proposamen eta adierazpen horien norabideaz hausnartu nahi da lan honetan. Lantxo hau ezaugarritu dezakegu larrialdi klimatikoari eta balizko irtenbideei so egiteko ikuskera zehatza eskainiko duten betaurreko gisa. Jakina, errealitatea nola begiztatzen dugun erabat baldintza dezake beronen gaineko eraldaketa. Horra hor, beraz, gure azken helburua: egungo egoera eta sistemaren eraldaketa, iraulketa. Izan ere, errotikako aldaketa behar baitugu baliabide naturalen ustiaketa amaigabearen oinarritzen den sistema kapitalistarekin amaitzeko eta ama lurraren gaineko errespetuan oinarritutako alternatiba ekosozialista eta feminista bat eraikitzeko.

Beraz, larrialdi klimatikoaren gaineko eztabaidari so egiteko ikuskera zehatz bat eskaintzea dugu. Baina bada hasieratik azpimarratu nahi dugun eta ezinbestekoa iruditzen zaigun ikuspegia: oro har mundu distopikoa eta etorkizun katastrofikoa eskaintzen ari zaizkigunean, guk (er)aldaketaren beharra eta aukera azpimarratu nahi ditugu. Era berean, teknologiak bere horretan arazo guztiak konponduko dituela eta beraz, itxaroteko eta ez kezkatzeko esaten digutenean, guk ere jada, gaur eta hemen, erabakiak hartzen hasi behar dela esatera gatoz. Itxaron nahi ez duen itxaropena izan nahi dugu. Ez gara inozoak eta badakigu interes ugari eta anitz dagoela eztabaida honen atzean, baina beste mundu bat posible delako borrokatzen dugu. Alternatiba badagoela sinestaraztea eta ikusaraztea ezinbestekoa da borroka pizteko, aurrera egiteko eta irabazpidean jartzeko.

Euskal Herriak ibilbide luze eta emankorra egin du afera honen inguruan, borroka anti-nuklearra da horren adibide erreferentzial eta nagusietako bat. Zorionez ez da adibide bakarra. Gure tradizioan Amalurra oso garrantzitsua izan da eta modernizazio prozesuak ez du desegin lurra eta bizitzarekiko lotura estua.

Urte luzeotan Euskal Herrian amalurra eta ingurumenaren aldeko hamaika borroka eta konpromiso garatu dira. Jakina, horietako asko ez ditugu irabazi, baina badira ere borrokatzeak merezi duenaren adibide ugari. Ama



lurraren aldeko borrokan sakontzea eta naturaren benetako errespetuan oinarritutako marko pertzeptiboa hegemonikoa egitea da ezbairik gabe hurrengo urteotako erronkarik garrantzitsuenetako bat eta, apaltasunez baina herri gisa dagokigun arduratik, egin dezakegun ekarpena hausnartu eta jada martxan diren edo abiatu daitezkeen borrokak, ekimenak, alternatibak eta ildoak biderkatu behar ditugu.





-LARRIALDI KLIMATIKOA-

AMA LURRAREN EGOERAZ

2012. urtean Londresen burutu zen *Planet under Pressure* konferentziak lur-sistemaren funtzionamendua arriskuan dagoela ohartarazi zuen. Era berean, Nazio Batuen babespeko nazioarteko biltzar zientifiko horrek munduko iraunkortasunak gizartearen oinarria behar duela izan adierazi zuen. 2015. urteko abenduan Parisen egin zen klima-alaketaren inguruko COP21 biltzar mediatikoak ere arazo global horrek sor ditzakeen eragin itzulezinen larritasuna mahai gaineratu zuen mundu-mailako hedabideen aurrean (Etxano, 2015).

Aurreratu dugun moduan, ingurumena, natura eta klimarekin gertatzen ari dena larria da oso eta erabakiak hartu ezean (edo erabakiak hartu eta bete ezean),

ondorioak itzulezinak izango dira ama lurrarentzat eta bertan bizi garen animalia eta landare guztiontzat. Gauza bera gerta daiteke hartzen diren neurriak ez nahikoak izan eta gure burua zuritzeko besterik ez badira. Larria da egoera eta larritasun horren arabera jarrera eta erabakiak behar dira.

Unai Pascual adituaren hitzetan egoera horrela laburbildu daiteke “ustezko neoliberalismo honek bizitza eta gizartearen euskarria suntsitzen jarraitzen du, are eta modu azeleratu eta intentsiboago batean. Hor dugu, esaterako, bioaniztasun eta baso gabetze etengabea, ozeanoen eta ur gezen kutsadura eta abar amaigabe bat



egiteko lista horren gainetik, klimaren krisi sakona” (Pascual, 2015).

Ematen ari den bioaniztasunaren galerarekin¹ erabat uztartuta dauden beste bi fenomeno garrantzitsu azpimarratu nahiko genituzke jarraian. Batetik, itsas baliabide gain ustiapenak, plastikozko poltsek itsasoan sorrarazten dituzten ondorioak, petrolio eta bestelako isurketak eta kostari eragiten ari zaizkion erasoak ama-lurraren biziraupenerako funtsezkoa den itsasoan kalte ikaragarriak sorrarazten ari dira.

Bestetik, deforestazioak eta basamortutze prozesuek ere izugarritzko eragina dute aipatzen ari garen biodibertsitatearen galeraren azkartze prozesuan. Adibide bat jartzearen Brasileko INPE ikerketa espazialeko institutuaren arabera, ama-lurraren birika nagusietakoa den Amazonian aurten jada 72.843 sute egon dira, lehengo urte osoan baino %83 gehiago. Eta komunikabide nagusietan arreta berezirik izan ez badu ere, Afrikan ere aurten inoizko suterik garrantzitsuenak eta bortitzenak izan dira. Nola ez, sute hauen eta eragindako deforestazio honen atzean, kasu gehienetan, lur landagarrien edo ustiagarrien hedatze nahia besterik ez dago. Ezbairik gabe esan dezakegu, bai itsas baliabideen murrizte eta desagertpenaren atalean eta, nola ez, deforestazioa eta basamortutze prozesuetan, interes ekonomiko zuzen eta oso handiak daudela.

Gauza bera gertatzen da aditu guztien arabera murriztu beharko liratekeen Co2ko isurketekin eta honen atzean ezkututzen diren garraio, automozio eta energia transnazionalen interes eta asmoekin.

Negutegi eta berotegi efektua zuzenean eragiten duten erregai fosilen erabileragatik ematen diren isurketak murriztu behar direla diote alde guztiek. Mundu mailako konferentzia ezberdinen aholkuz esan ohi da 2030erako isurketen %40-45a murriztu beharko dela, baina horretarako ez dira behar bezalako neurriak hartzen ari. Era berean, “Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko panelak (IPCC) berriki adierazi duenez, tenperaturaren igoera 2°C azpitik mantentzeko, (...) munduko isurketek %40 eta %70 bitartean murriztu beharko lirateke 2050 bitartean, eta erabat ezabatu 2100 bitartean” (Etxano, 2015). Aldiz, eta kasu honetan Pascualen esanetan, “Orain arte bezala jarraituz gero, gutxienez hiru graduko berotze batekin iritsiko gara mende amaierara, eta hori, Parisko

itunean herrialdeek hartu zituzten konpromisoak betez gero” (Pascual, 2019).

Eta azaltzen ari garen errealitate gordina ezin da Euskal Herritik kanpo kokatuta dagoen arazo gisa ezaugarritu, guk ere ardura handia baitugu alor honetan. Adibide soli gisa, 2017an EAEko herritar bakoitzak 9’2 tona CO2 isuri zuen, mundu mailako bataz bestekoa 4’7koa denean. Eta uneoro “Espainian baino hobeto” errepikatzen duten horiei ere gogoratu beharko genieke Estatuko (7’2 tona) eta Europar Batasuneko (8,4 tona) kopuruaren gainetik isurtzen (kutsatzen) ari garela. Datu horiek eskuan, gure erronkaren tamaina askoz hobeto ikusarazi daiteke.

Orain artean aipatutako guztiak, jakina, zuzenean eragiten ari da klimaren aldaketan. Azken udarak, adibidez, inoizko udarik beroenak izaten ari dira. Gurean jada klima aldaketa horren ondorioak erraz identifikatu daitezke eta gure herriaren hegoaldeko herrietan eurite eta uholdeak ematen diren bitartean, kosta partean hain ezaguna zen xirimiria jada apenas ezagutzen da.

Bizitzen ari garena ez da kasualitatea edota ziklo natural baten baitan kokatu daitekeen gertakaria. Pairatzen ari garen larrialdi klimatikoa gizakiaren jardunaren ondorioz ematen den fenomeno da eta gezurra badirudi ere, gizakia beraren eta ama lurraren baliabide eta espezie guztien biziraupena jartzen ari da arriskuan.

Eta gizakia diogunean, egun gizakiaren (des)antolaketa mundu mailan nagusi den sistema kapitalistaren atzaparrak ikusi eta azpimarratu behar ditugu halaber. Ezbairik gabe, sistema kapitalistaren krisien bihotzean krisi ekologikoa bera dago ere. 70. hamarkadan eman zen “petrolioaren krisia” deiturikoarekin batera, amaiera eman zitzaion sistema kapitalistak bere historian zehar izan duen garapen fase luzeenetakoari. Hamarkada berean, 1972. urtean hain zuzen ere, publiko egin zen “The limits to Growth” (Meadows, et al., 1972) txosten famatua, non jada betirako izan zitekeen hazkunde ekonomikoa zalantzan jarri zen aurrenekoz.

Garai horretatik, 50 urte pasatu dira jada. Krisi ekonomikoak ugaltu egin dira azken hamarkadetan eta, bestalde, agerikoa da sistemak, bere osotasunean, askotariko krisiak dituela: krisi energetikoa, elikadura krisia,

¹ Unai Pascual gazteizarrak parte hartu du, hain zuzen ere, IPBES Ekosistemen Zerbitzuei eta Biodibertsitateari Buruzko Gobernu Arteko Plataformak bioaniztasunaren inguruan argitaratu duen txostenaren elaborazioan. Ikerketa zientifiko sendo horren arabera, munduan zortzi-bederatzi milioi espezie dago munduan eta horietatik milioi bat betirako galtzeko arriskuan dago. Milioi bat espezie!



zaintzaren krisia eta oraingoan zehatzago aztertzen ari garen krisi klimatikoa bera.

Uztartuta dauden krisiak dira, ezbairik gabe, langileriaren zapalkuntzan², patriarkatuak eragindako zapalkuntzan eta baliabide naturalen ustiaketa harrapakarian oinarritzen den sistemaren ondorioak baitira horiek guztiak.

Bestalde, aintzakotzat hartu behar dugu ere, sistema kapitalistaren hastapenetatik, azken hamarkadetako garapeneraino (neo)kolonialismoa ezinbesteko osagaia izan dela eta izaten jarraitzen duela, egun ere. Hau da, iparraldearen “garapena” hegoaldeko baliabideen xahuketan oinarritu da etengabe eta haien baliabideen gaineko negozioa egiteko era guztietako mugak desagerrarazten diren bitartean, bertako migrazioari aurre egin nahi dioten murru eta muga berriak altxatzen ari gara. Horra hor, krisi ezberdinen arteko uztarketa erakusten digun beste adibide gordin eta lazgarria.

Planetaren beroketa eta errekurtsu naturalen agortzea (petrolio..) dira etengabe hazi nahi duen sistema kapitalista hedakor horren ondorioak ikusgarrienak. Baina, nekez heda daiteke mugarik gabe, halabeharrez baliabide natural mugatuen gainean hazi nahi duen sistema. Egungo sistema kapitalistaren garapen eredua oso kaltegarria izateaz gain, erabat bideraezina da.

Zibilizazio afera da, oso sakona, eta beste zibilizazio batera joan behar dugu, derrigorrez, baina hori lortzen ez

dugun bitartean larrialdiari erantzun behar zaio, batetik, eta alternatibak pentsatu eta gauzatzeko baldintzak eraiki behar ditugu, zerumuga argi batez: eredu honek bizitza kaltetzen du, arriskuan jarri arte, beraz, norabide aldaketa behar dugu, derrigorrez eta lehenbailehen.

“Dibertsitate Biologikoko Hitzarmenaren Idazkaritzak (2010) azpimarratu zuen hurrengo 10 edo 20 urteetan hartzen diren neurriek determinatuko dutela giza zibilizazioak azken 10.000 urteetan izan dituen ingurumen-baldintza gutxi gora behera egonkorrek hurrengo mendean zehar bere horretan jarraituko duten ala ez” (Etxano, 2015). Halako larritasunaz hausnartu eta norabide egokian erabakitzen hasi beharra dago. Jakina da jada batzuk kapitalismo berdeaz ari zaizkigula eta ez dela faltako halako egoeratik ere negozioa egin nahiko duenik. Larrialdi ekologiko eta klimatikoa sistema kapitalista eta patriarkarraren krisi(ar)ekin uztartu eta ikuskera berri baten gainean eraikitako sistemarentz abiatu beharra dago.

Lan honetan, besteak beste, ikuskera berri horrek eta hartu beharreko neurri horiek izan behar duten ezaugarriez eta norabideaz arituko gara. Helburua, denon artean iritzi publikoan eragitea eta eraldaketarako aukerak zabaltzea da.



² Lanaren erreferentzia egiterako ulermen zabal batetik abiatzen gara lan ordaindu eta ez ordainduetan ematen den zapalkuntza azpimarratzeko.

LARRIALDI
KLIMATIKO ETA
EKOLOGIKOARI
AURRE EGITEKO
NORABIDE
BERRI
BATERAKO
OINARRIAK





-ARAZO SOZIAL ETA GLOBAL GISA EZAUGARRITZEA-

SISTEMA KAPITALISTAREN ONDORIO

Larrialdi klimatikoa ez da arazo sektorial bat, krisi ekologikoa ez da gure bizitzaren atal soil bati eragiten dion fenomeno. Larrialdi klimatikoa ez da errezeloz begira daitekeen identitate moda bat. Larrialdi klimatikoa arazo sozial eta globala da, egun pertsonok dugun arazo sozial nagusietako bat eta aipatu berri dugun sistema kapitalistaren krisi anitzekin batera begiztatu eta aztertu behar dena.

Pentsamendu kritikoaren lehen premisa da arazoen iturburuetara jotzea eta larrialdi klimatikoaren arrazoa, bereziki, sistema kapitalistaren motorra den etekinen ugaltze etengabeko nahikerian aurkitzen da. Marxek

aspaldi iragarri zuen kapitalismoak krisiak sortuko zituela etengabe, gainproduktzio krisiak hain zuzen ere.

Kapitalaren etekinak bermatzeko eta krisiak ekiditeko, kontsumo basati eta amaigabera bultzatzen gaituzte eta mundu mailako homogeneizazio prozesuak ere hori du helburu: tokiko kultura, hizkuntza, produktu eta ezaugarriak deuseztatu eta planeta osoa kontsumitzeko merkatu handi eta bakarrean bihurtu. Kapitalismo globalizatu honen garapen ekonomiko amaigabeak baliabide naturalen ustiakuntza iraunkorra eskatzen du eta, jakina, finituak diren baliabideak infinitua nahi den garapenarekin



bateraezina da.

Patriarkatuaren eragina nabarmena da guzi honetan; patriarkatuaren muina boterea menperatzeko gaitasun gisa ulertzea da, ez egiteko ahalmen moduan. Kolonizatzailea da patriarkatua, emakumeak eta bereziki emakumeen gorputzen kolonizazioan oinarrituta eredu hori atal guzietara hedatzen duelako, menpekotasun harremanetan oinarritutako jerarkiak biderkatuz. Lurra(ldeak) eta bizitza formak kolonizatzea izan da aspaldiko erronka sistema patriarkaletarako, afera aspaldi dator, basoak suntsitu eta larrain edo labore soroak bilakatu, lurraren altxorrak atera... Eredu horrek ez du lurrarekiko eta bizitzarekiko oreka ikuspegirik, menperatzeko joera baizik. Kapitalismoak eta kolonialismo modernoek eredu honen erradikalizazioa eta mundu mailako hedapena ekarri zuten, erarik basatienean. Gaur egun kolonizazio orokorraren fantasia elikatzen du neoliberalismo autoritarioak, dena menperatu nahi baitu, bizitza forma guziak gutti batzuen zerbitzura jarritz.

Bestalde, krisi migratorioak krisi klimatikoarekin duen harreman zuzena ere azpimarratu nahi dugu. Dela baliabide naturalen agortzeak eragiten dituen gerrengatik edo dela klimaren aldaketak eragin dituen basamortutze prozesuengatik, milioika pertsona goseteen ondorioz hiltzera edota migratzera kondenatuta daude. Foku beretik abiatutako metastasi gisa, sistema kapitalistaren krisi ezberdinek ere oinarri bera dute eta, zoritxarrez, biderkatzen eta areagotzen ari dira.

Beraz, krisi klimatikoaren oinarrian sistema kapitalista, koloniala eta patriarkarraren krisia bera dagoela aldarrikatu behar dugu. Baga, sistema kapitalistak etengabeko garapena nahi du, baina askotariko krisiak eragiten ditu, etengabea gainera. Biga, garapenak, ustez, aberastasuna sortu eta berau gizartean hedatu ahal izango da. Errealitatea gordina da ordea eta pobrezia, langabezia eta prekarietatea mundu osoan zabaltzen ari dira (bereziki emakume eta migranteen artean). Eta higa, aurreko guztia gutxi balitz, krisi ekonomikoak biderkatu eta beronen ondorio sozial gordinak hedatzen diren bitartean, amalurraren baliabideekin amaitzen ari gara, betirako eta atzera bueltarik gabeko norabide ero batean sartuz. Horregatik diogu larrialdi klimatikoa ez dela arazo sektorial huts bat, sistema osoaren gabeziak agerian uzten dituen arazo sozial eta globala baizik.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

EKONOMIAK BETAURREKO (PARADIGMA) BERRIAK BEHAR DITU

Sistema kapitalistaren krisiaren baitan kokatutako arazo sozial eta global larri gisa kokatzeaz gain, bestelako eredu eta sistema eskaintzeko unea iritsi da, baina horretarako, ezinbestean, bestelako begirada ekonomikoa behar da.

Egun sistema kapitalistaren sostengu ideologiko garrantzitsuenetakoa ekonomiaren paradigma nagusia da, hau da, liberalismo ekonomikoan oinarrituta ekonomia neoklasikoa. Ikuspegi ekonomiko horren oinarrian homo-economicus-aren planteamendua dago, zeinean interes ekonomiko soilak lehenesten dituen gizakia irudikatzen den. Ekonomiaren paradigma nagusiaren arabera, interes ekonomikoak helburu dituen norberekeriak



merkatu(ar)en oreka eta erabaki optimoak bermatuko ditu. Adam Smithen esku ikusezinaren bertsio matematikoa, alegia. Aitzitik, ekonomia eredu horrek esku ikusezinaz gain, bestelako faktore ugari egiten ditu ikusezin, adibidez, zaintza lanak edo natur baliabideen ustiapen basatia.

Ekonomiaren ikuspegi oso mugatua duen eredua da aurrekoa. Horren baitan, adibidez, arduradun politiko eta ekonomiko nagusiek hazkunde ekonomikoa ere, bere ikuspegi hertsian, besterik ez dute bilatzen. BPG-a handitzea omen da beti helburua, baina BPGan etxean egiten diren zaintza lan ugari aitortzen ez diren bitartean, armagintzak, drogek edo prostituzioak³ BPGaren

³ Bitxikeria bezala, aipatu behar da 2014tik aurrera estatu espainiarreko BPG-k droga eta prostituzioaren datuak kontuan hartzen dituela. Estatua frantziarrak aldiz prostituzioa ez da kontabilizatzen.

urteko kalkulua handitzen jarraituko dute. Era berean, eta naturaren ikuspuntutik, erraustegi baten jarduerak BPGa handitzen du eta milaka herritarrok egiten dugun etxeko berziklapena berriz, batere. Betaurreko eskasak eta okerrak dira inondik ere eredu ekonomiko batentzat.

Bizitzaren iraunkortasun, jasangarritasun eta erreprodukzioan zaintza lanek eta natur baliabideek duten garrantziaz jabetu beharra dago. Agerikoak dira bi atal horietan egun pairatzen ari garen krisiak: zaintza ereduaren krisia eta krisi ekologikoa bera. Aitzitik, gaur egungo ekonomia ereduak ez ditu zaintza lanak aitortzen, ez eta natur baliabideen ustiakuntza basatia kontuan hartzen ere.

Bestelako begirada eta helburuak finkatuko dituen ekonomia eredu berria behar dugu. Ekonomia feministatik eta ekonomia ekologikotik egiten ari diren ekarpenak kontuan hartu eta errealitate materiala, soziala eta ekonomikoa, bere osotasunean, interpretatzeko tresnak eskainiko dizkigun eredurantz jo beharra dago. Ez da nahikoa, adibidez, zaintza lanak positiboki eta kalte ekologikoak negatiboki kontabilizatzea edo merkantilizatzea. Kontzeptu, kategoria eta helburu berriak eraikitzea da erronka, bestela pentsatu bestela eraiki ahal izateko.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

HAUSTURA ETA IMAGINARIO BERRIEN BEHARRA

Kapitalismoak historikoki mutatzeko erakutsi duen gaitasuna ikaragarria da. Oraingoan, erregai fosilen amaierarantz iristen ari garenean, krisi klimatikoa agerikoa denean eta ingurumena eta bioaniztasuna arrisku larrian daudenean, jakina, bada ere kapitalismo berdea aldarrikatzen duenik, baita horretan negozio aukera handiak ikusten dituenik ere.

Bada ez, baliabide naturalak ez dira amaigabeak eta sistema kapitalistak bere horretan amildegi ekologikora garamatza. Orain arteko gure logika ekonomiko eta sozial guztia irauli beharra dugu. Ekonomia begiztatzeko betaurreko berriak behar ditugun bezala, etorkizuna marrazten hasteko ere tresna berriak behar ditugu.

Badakigu erregai fosilekin amaitu behar dugula, baina ez gaitezen engaina, energia berriztagarriek ezingo diote erantzun etengabe handitzen ari den energia eskariari. Energia gastua murriztu beharra dago. Garraioa elektrifikatzea, adibidez, ez da nahikoa. Azken urteetan hegazkin eta itsasontzi bidaiek izan duten hazkundera ez da sostengarria epe luzean eta, beraz, garraioaren gaineko hausnarketa orokorrago ere ezinbestekoa da.

Bestalde, bada teknologian bere itxaropen guztiak jarri nahi dituenik eta, jakina, aurrerapen teknologikoei asko lagundu diezagukete egoerari aurre egiten. Edonola, teknologiak edo robotizazioak ez dituzte arazo guztiak konponduko. Gainera, egun teknologiaren jabegoa, oro har, noren eskutan dagoen aztertzea besterik ez dago,



teknologiaren erabilpena zein norabideetan ezarriko den asmatzeko. Beraz, teknologia bai, jakina, baina onar dezagun hori ere ez dela nahikoa izango.

Bestalde, marketinean eta kontsumismo basatian oinarritutako sistema da gurea. Hori gutxi balitz, programatutako obszeszentziak hori areagotzea besterik ez du helburu. Ekoizpen amaigabeak itzuli ezina izango den amildegira garamatza eta, ondorioz, kontsumoa ere, halaberrez murriztu beharra dago.

Orain arteko ereduarekin hautsi beharra eta bestelako eredua eraiki beharra dago eta horretarako errotiko aldaketa behar da. Sistema kapitalista bere osotasunean ez ezik, egungo gizartearen edo zibilizazioaren garapen eredua bera auzitan jarri behar da. Kontua ez baita gehiago edo gutxiago haztea, zein hazkunde eta zein desazkunde behar ditugun birpentsatzen hastea baizik.

Bestelako imaginario sozialak behar ditugu. Kapitalismoaren garaipen nagusienetarikoa gure jendartearen erraietaraino sartua dagoen imaginario kontsumitzailean dago. Beste mundu bat posible izateaz gain, “guztionezako bizitza hobeagoa” ideia gure borroka eman behar dugu eta, jakina, “ongi bizitzearen” ideia berrasmatu beharra dago. Borroka ideologiko sakona eta anitza da hau, non birkontzeptualizazio eta marko mental berriak sortzeko eta gizarteratzeko lan aparta izango dugun.

Orobat, mundua eta bizitza begiztatzeko beste ikuskera oso bat behar dugu. Ekonomia produktiboa eta erreproduktiboaren arteko dikotomiarekin amaitu eta bestelako lan eta bizi eredu bat berrasmatu behar dugun bezalaxe, eredu ekonomiko berria natur baliabideen erabateko sostengarritasuna bermatuko duen sistema integral baten barnean kokatu beharra dago. Inposatzen diren ikuspegi sektorial eta partzialen ordez amalurrarekiko erabateko errespetuan eta hazkunde pertsonal, kolektibo eta humanoa bilatzen duen eredu integrala pentsatzen eta praktikara eramaten hasi beharra dago.

Egungo sistemaren makillajea baino, bestelako eredu oso bat margotzen hasi beharra dago. Badakigu ez dela lan erraza izango, baina haustura beharrezkoa da bestelako eredua pentsatzeko eta bestelako eredua ere eraikitzen hasteko.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

TRANSIZIO EKOLOGIKOA

Eredua errotik eraldatu behar dela esan berri dugu, baina eredu berria ez “D” egun bakarrean eraikiko. Halaber, egungo egoeratik eredu berri batera eramango gaituen trantsizio ekologikoa hausnartu, eztabaidatu, adostu eta, bereziki, praktikara eraman behar da.

Jakina, establishmentaren partetik trantsizioa ekiditea edo atzeratzea izan da estrategia nagusia. Kasu batzuetan ere, trantsizioa haien eredu edo interesetara makurtzea bilatzen dute batzuk, hain indartsua den energia transnazionalen sektore oligopolioak adibidez. Horrek guztiak jarrera eta erantzun tinko bat eskatzen du, besteak beste, egungo botere gune nagusietatik hartu behar diren neurriak ere lehenbailehen hartzeko.

teknologian, ekoizpen produktiboa deiturikoan, hezkuntzan, hondakin-politikan, hirigintzan, politika publikoetan, harreman komertzialetan, esparru horietan guztietan eta beste askotan ere, hartu daitezke (kasu batzuetan hartzen ari dira jada) hamaika neurri eta erabaki eredu ekonomiko eta sozial berri eta ekologiko bat eraikitzen hasteko.

Neurri eta ekimen horiei guztiei bestelako eredu baterantz doan logika eta integraltasuna eman eta, bereziki, trantsizio ekologiko horrek indarra hartu dezan ekimenak biderkatu behar dira kopuruan eta haien hedapenean.

Energian, garraioan, elikaduran, zaintzaren alorrean,





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

PRAKTIKA ETA EKINTZEN BIDEZ (ER)ALDATZEN DA ERREALITATEA

Esan dugun moduan egungo krisi klimatikoa sistema kapitalistaren krisiaren erdian kokatu beharra dago. Beronen irtenbidea eredu berri bat hausnartzetik eta norabide berrian urrats sendo eta erabakigarriak ematetik etorriko da, ez besterik.

Naturaren eta ingurumenaren aldeko diskurtsoa politikoki zuzena egin den honetan, errotikako kritika teorikoa egin behar zaio sistema osoari, ados. Baina bereziki beronen eraldaketak kezkatu behar gaitu, hori da lehentasuna, gure herrian eta munduan alternatiba ekosozialista baten aldeko praktika politikoa eta soziala egituratzen hastea.

Eta horretarako, ezin dugu, besterik gabe, ardurak gainetik kendu eta gainontzekoei era guztietako ardurak leporatzen hasi. Gutako bakoitzaren esku dago zer egin eta nola

egin. Gaiak benetan larritzen bagaitu, arduraz jokatu beharra dago.

Edonola, bada atal honetan azpimarratu beharreko ideia bat. Herrialde ezberdinek eragin dituzten isurketa eta kutsaduraz hitz egiten denean, nazioartean onartzen da herrialde guztiek dutela orain egoerari aurre egiteko ardura. Aitzitik, nazioarteko komunitateak aitortzen du, oro har, herrialde guztiek ez dutela ardura bera eta hamarkada luzeetan gehiago kutsatu dugun mendebaldeko herrialde eta herritarrok ardura gehiago dugula beste batzuk baino. Irizpide honi “partekatutako erantzukizuna baina desberdindua” deritzon printzipioa deitzen zaio. Hau da, ardura denona da, baina herrialde batzuk ardura handiago dugun neurrian, gure ahalegina eta erantzuna are handiagoa beharko du.



Bada gauza bera gertatzen da pertsona, erakunde edota trasnazionalak elkartzen baditugu. Denok dugu ardura eta gutako bakoitzaren esku dago ingurumenaren eta trantsizio ekosozial baten alde aritzea, baina, jakina, erakunde politikoen edota transnazionalen erantzukizuna eta hartu beharreko erabakiak eta konpromisoak handiagoa behar dute izan, ezbairik gabe. Adibide soil eta erraz batera eramanez, esan dezakegu gure herrian denon eskutan dagoela birziklapenari bultzada sendo bat ematea, baina atez ate baztertu eta errauskailuaren alde egin zuten arduradun politiko eta ekonomikoek duten ardura, jakina, askoz handiagoa da.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

ARAUTZE, KONTROL ETA PROPIETATE PUBLIKOAREN GARRANTZIA

Aipatu berri ditugun transnazionalen kapitalak agintzen du munduan eta agerikoa denez natur baliabideak bost axola zaizkio haren negozioaren aukerak ez baditu areagotzen. Demokraziaren pribatizazioak, besteak beste, natur baliabide publiko eta komunaren pribatizazioa eta ondoreneko ustiaketa basatia eta kontrolaezina dakar.

Egoera hori irauli beharra dago eta horretarako bi norabideetan urratsak ematea ezinbestekoa da. Batetik, botere publikoa eta soziala bermatuko dituzten neurriak behar dira. Natur baliabideen gaineko arautze publiko sendo

bat behar da eta bereziki errespetatu arazteko gaitasuna izango duen botere publikoa behar da eta ez transnazionalen beharretara makurtuko dena. Bestetik, natur baliabideen propietate publikoa defendatu eta bermatu behar da. Lur eremu edo ondasun naturalen pribatizazioak, oro har, kalte ekologikoak besterik ez ditu ekarriko gutxi batzuen negozioaren mesedetan eta soilik propietate publikoak bermatzake haien gaineko eztabaida eta erabaki sozial arduratsuak.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

BURUJABETZA POLITIKOAREN BEHARRA

Egungo nazio-estatuaren izaera eta mugak helburu zehatz batekin sortu ziren duela jada mendeak: sistema kapitalistak behar zuen merkatu eremuak bermatzea eta horren arabera arautzea eta segurtasuna bermatzea. Edonola, sistemaren etengabeko krisiek eta haien ondorio sozialek, langile borrokek, alternatiba sozialista baten aukerak, etab... ongizate estatua deiturikoa ere eragin zuten. Dena den, kapitala eta lanaren arteko lehia estatuaren tresna nagusiak, oro har, lehenengoaren alde aritu dira urteetan eta azken hamarkadetakoa neoliberalismoaren hedapenetik are handiagoa da joera hori.

Estatuak ez dugun herriek, gainera, estatuak izan ohi dituzten baliabide eta tresnarik gabe aurre egin behar diogu bufada neoliberal eta demokraziaren pribatizazioaren prozesuari. Horregatik burujabetza politikoaren aldarriak inoiz ez bezalako garrantzia hartzen du halako testuinguruan.

Larrialdi klimatikoaren testuinguruan, estaturik

gabeko herriek eta herritarrok burujabetza politikoaren premia aldarrikatu behar dugu. Ahalmen eta gaitasun politikoak behar ditugu krisiari aurre egin ahal izateko eta, bereziki, aipatu dugun alternatiba ekosozialista baten norabidean adostu behar dugun trantsizio ekologikoak gure herrian adosteko eta lehenbailehen martxan jartzeko. Burujabetza politikoak, beraz, ez da soilik kultura edo identitate baten ikuspuntutik egiten dugun aldarria, aurrez aurre ditugun arazo sozial, ekonomiko eta ekologikoei aurre egiteko ezinbesteko osagaia baizik. Herrien burujabetza politikoak soilik berma dezake herritarren burujabetza eta, ondorioz, bestelako planeta eta jendarte baten alde borrokatuko duten herri eta herritar askeak.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

GLOBALIZAZIOA VS. TOKIKO GARAPENA

Herriak, kulturak, hizkuntzak... ukatu, mespretxatu, desagerrarazi eta merkatu bakar eta handi bat osatzea da transnazional handien azken asmoa. Helburu horretan amalurra eta natur baliabideak bitarteko hutsak besterik ez dira. Etorkizunean pentsatu gabe, gaur eta hemen negozioa egitea da haien lehentasuna eta horretarako globalizazioak inoizko merkaturik handiena eskaintzen die. Horren arabera antolatu nahi dute mundua.

Bestelakoa behar du gure ereduak, tokiko garapenean oinarritua alegia. Gure herrian jada zabalpena duen eredu horrek ahalbideratu dezake bestelako eredu ekonomiko, sozial eta ekologikoa eraikitzen hastea, behetik gorakoa, herrietatik eskualdeetara, eskualdeetatik Euskal Herrira eta gure

herritik mundura. Horra hor gure erronkaren norabidea, txikitik handira.

Eta eredu horren barnean indarrez kokatu beharko ditugu trantsizio ekologiko baterako oinarriak izan daitezkeen elikadura burujabetza, energia burujabetza, ondasun komunen zaintza-kudeaketa kolektiboa edota bestelako proiektu publiko, kolektibo eta kooperatiboak. Horiek tokiko garapen prozesuen norabidea bermatzeko ezinbesteko iparrorratz gisa aritu daitezke eta, esan bezala, praktikaren eta ekintzaren bitartez hasi gaitezke egungo eredu iraultzen eta eraldatzen.





-NORABIDE BERRI BATERAKO OINARRIAK-

EUSKAL HERRIA ERALDAKETA ETA TRANTSIZIO SOZIO- EKOLOGIKORAKO ESPARRUA?

Arestian aipa bezala, Euskal Herrian mugimendu eta borroka ekologistak historia luzea du: Lemoiz, Bardeak, Autobia, AHT, Garoña, Atez atekoaren aldeko apustua, Fracking eta errauskailuaren kontrako borroka, Bizi Mugimenduaren ekimenak.... Erantzunezko borroka horiez gain, zorionez, esan dezakegu une honetan eta alor ezberdinetan alternatiba eta praktika erreal ugari garatzen ari direla lan honetan aipatzen ari garen norabidean.

Batetik, Euskal Herrian nekazal eremutik indarrez bultzatzen ari da elikadura burujabetzaren aldeko

ekimen eta jarduera zehatzak, kontsumo taldeak ere gorantza doaz eta bertako produktuen aldeko ildo indartzen ari da egunegun. Bestetik, energiaren alorrean energia kooperatibak ere hedatzen doaz azken urteetan eta udalek eta kooperatibek bultzatutako energia proiektu lokalak biderkatu dira azken aldian. Lehenago aipatu bezala, tokiko garapenerako prozesuak bestelako eredu bat birpentsatzeko eta horren arabera proiektu eta ekimenak martxan jartzeko ere baliagarriak izan dira. Azken urteotan horien barnean, adibidez, elikadura eta energia burujabetzaren hainbat egitasmo eta kooperatiba bultzatu dira ere. Bi esparru



besterik ez dira, baina gure herrian eraldaketaren eta trantsizio ekologikoaren alorrean dagoen altxorraren adibide ederrak dira.

Euskal Herrian baso, bide, larre edo ibaiak garbitzeko aspaldi asmatu zen auzolana. Oraindik ere, leku askotan bizirik mantentzen den ohitura da. Joera komunitario horrek oihartzun handia izan du gurean. Inposatu nahi zaigun indibidualismo horren aurrean kolektiboki erantzuteko gaitasun horrek euskal kooperatibismoaren sorrera eragin zuen, adibidez, duela hamarkada batzuk. Eta egun ere, ekonomia sozial eraldatzailea gurean izaten ari den ugaltzeak erakusten du zein kapital sozial handia dagoen gure herrian.

Bestalde, eta txikitasunetik handira abiatu nahi den prozesuaz ari garenean, udalgintzak gure herrian izan duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Egun ere, udalerrri eta eskualde askotan hamaika ekimen martxan jartzen ari da eta udalak dira horietako askoren bultzatzaile edo ezinbesteko laguntzaileak. Udalgintza eredu eraberritu eta indartsu horrek, jakina, izugarri lagundu dezake alternatiba hori eraikitzen, herriz herri dauden indarrak biltzen, norabideak adosten eta egitasmo errealak martxan jartzen.

Dena den, ez gaitezen okertu. Larrialdiaren tamainako erantzunak behar ditugu eta, beraz, esparruz esparruz eta eskualdez eskualdez egiten ari den eta egin behar dugun horretaz gain, erroetara jo eta egiturazkoak beharko duten erabaki politiko eta publikoak behar dira. Adibidez, iparrorratza karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herria baterantz begira jarriko badugu, modu eraginkor batean eta ekitate soziala bermatuz (larrialdi klimatikoak jendartearen geruza zaurgarrienak kolpatzen baititu bereziki), aurrera eramango diren herri akordio eta neurri politiko sendo eta ausartak ere beharko ditugu. Egungo zurikeria salatu, alarma gorria piztu eta horren arabera neurriak ere beharko ditugu.

Frankismoak ezarritako debeku guztien gainetik herri honek gaitasuna erakutsi zuen oldartzeko, berreraikuntza prozesu bati ekiteko eta, adibidez, ikastolak edo gau eskolak martxan jartzeko. Orain ere larrialdi klimatikoak suposatzen duen erronkaren aurrean, herri gisa hausnartu eta merezi duen pareko erantzuna ere eman behar dugu, hitzez eta ekintzez.

Erantzun hori, adierazi bezala, bi norabideetan beharko du. Batetik, larrialdi klimatikoaren atzean dagoen sistema kapitalistari kritika zorrotza eginez eta, ondorioz, sistema

logika horren ondorio diren AHT, errauskailu edo dena delako proiektuak salatuz eta aurre eginez. Baina bestetik, gure erantzuna ere eraikitzailea behar du. Ezin dugu, adibidez, burujabetza politikoa noiz eskuratu zain egon trantsizio sozio-ekologikoa abiatzeko. Areago, sinistu behar dugu herri gisa halako erronkari aurre egiteak, elkarrekin hausnartu eta alternatiba kolektiboak eta indartsuak eraikitzeak ere herri egingo gaituela, amalurra defendatu eta zaindu egiten duen herria hain zuzen ere.

Euskal Herrian dagoen ama lurrarekiko errespetua, eraldaketarako grina, kolektibotasunerako joera eta irakurketa teorikoa borroka praktikoarekin uztartzeko gaitasuna osagai oso baliotsuak dira mundu mailako trantsizio sozio-ekologiko baten norabidean gure aletxoak jartzeko.

Gaian sakondu nahi duenarentzat lotura interesgarriak:

- Ipar Hegoaren material sorta: <http://iparhegoa.eus/index.php/eu/talaia/langile-mugimendua-eta-aldaketa-klimatikoa>
- Yayo Herreroren elkarrizketa: <http://iparhegoa.eus/index.php/eu/talaia/erronka-ekosozialen-aurrean-alternatibak/125-yayo-herrero-trabajos-y-modelos-productivos-en-la-crisis-sitemica>
- Unai Pascualen elkarrizketa: https://www.berria.eus/udako_serieak2019/08/13/klimaren-larria/unai-pascual.htm
- UEUren liburua http://www.ueu.eus/denda/ikusi/ekonomia_eta_iraunkortasuna__oinarriak_eta_aplikazioak

